



OTOMO-REN KOMIKIAK 40 URTE BETE DITU

Leherketaren uhinak gaur arte ailegatu dira

Akira. Bi mila orrialdetik gora da Katsuhiro Otomo *mangakak* 1982tik 1990era bitarte argitaraturiko istorioa, sei tomo handitan –japonieraz *tankobon* deitzen zaie aldizka publikaturiko istorioak biltzen dituzten liburukiei–. Irakurtzeko astirik edota gogorik ez duten irakurleendako hiru solaseko laburpena: *dena lehertzen da*.


 SANTI LEONÉ

Lau hitzeko laburpena egitekotan egon naiz, *akabera dena lehertzen da* hain zuzen ere, baina horrek laburpena hain laburra ez izatea ekartzeaz gainera, ez litzateke egia. *Akiran*, aldian behin dena lehertarazteko beharra sentitzen dute Otomoren pertsonaiek; *Akiran*, zenbait orrialdetik zenbait orrialdera, den-den-dena ez bada, estadio olinpiko batek edo zeruorratz erraldoi batek –edo batzuek– edo hegazkin-ontziren batek eztanda egin behar du, edo erroiztu, edo hondoratu, su eta ke hodei izigarrien artean.

JAPONIAKO, EUROPAKO ETA AEB-ETAKO KOMIKIEN BIDEGURUTZEAN

1954ko apirilaren 14an Japonia-ko Miyagi prefeturan sortua, Ka-

tsuhiro Otomo *Akiran*en bi bertsioen sortzailea da, mangarena –komikia alegia, arestian erran bezala 1982tik 1990ra argitara emana– eta animearena –filma alegia, 1988an estreinatua, artean manga akitu gabea zelarik–, eta *Akira* da dudarik gabe haren famaren zutabe sendoen, baina bertze lan batzuen egilea ere bada. Komikiaren munduan, aipatzekoak dira, bertzeak bertze, *Domu* –1980koa, frantsez eta ingelesez paratu zioten izenburuari jarraiki, *Haurren ametsak* euskaratuko genukeena, baina espainolez *Amesgaiztoak* izena duena– edo *Memoriak* –1990ekoa–; Batman ere marraztua du, *The Third Mask* (Hirugarren maskara) istorio laburrean, 1996ko *Batman Black and White* bilduman sartua. Animea-



ren muduan ere *Akira* ez da haren lan bakarra izan, baina, irakurlea Interneten aise aurkitzen ahal den informazioarekin ez nekatzeko, hemen 2004ko *Steam-boy* baizik ez dugu aipatuko.

Agian ez da mundu zabalean aho batez onarturiko egia, baina naski ez da gezur handia erratea Jiro Taniguchi dela komikigile japonarrietan europarrena. Bere estiloan, Katsuhiro Otomo ere aski europarra da, baina akaso komeniko liztateke hiru bideren artean kokatzea.

Otomoren eragin japoniarren artean, gaztetan irakurritako edo animazioko filmetan ikusitako bi izen aipatu behar dira nahitaez. Batetik, Osamu Tezuka (1928-1989), *Astroboy*-ren sortzailea, eta, bertzetik, Mitsuteru Yokoyama, 50eko hamarkadan *Tetsujin 28-go* manga sortu zuena, geroago, 60ko hamarkadan, animea ere izan zena. Pertsonaia nagusia, *Tetsujin 28-go* izeneko robota, Japoniatik kanpo *Iron Man 28* edo *Gigantor* gisa ezaguna izan zen. Alde horretarik, segur aski ez da kasualitatea Akirari, erran nahi baita Akira pertsonaiari, zein eta 28. zenbakia eman izana.

Baina, Japoniako eraginekin batera, Europako zientzia fikzioaren itzala ere sumatzen da Otomoren estiloan, koloreetan eta gaitetan; batez ere Frantziako zientzia fikziozko komigintzarena, eta, ororen gainetik, Jean Giraud *Moebius*ena (1938-2012), zeinarekin harreman pertsonala ere izan baitzuen. Eta, azkenik, AEBetako *underground* komikiaren eragina edo gustua ere ezin aipatu gabe utzi, aski nabarmena *Akiran* ageri diren gai batzuen tratamenduan, hala nola bortizkeria edo droga-
ren erabilerarena.



'Akira' mangaren lehenbiziko zenbakiaren azala.


MANGA ETA ANIMEA

Segur aski, *Akiraren* irudirik ikonikoen Kaneda, gibeletik ikusia, itxura futuristako moto gorri aldera doanekoa. Eta, horrekin batera, Neo Tokion barnako moto lasterketak dira ezagunenak. Ez dira beharbada guti izanen *Akira*, funtsean, motozale errebeldeen istorio bat dela uste dutenak. Eta, neurri batean, hala da animean. Animazioko bertsioan gauzak dezente urruntzen baitira mangatik. Komikian pisu handia duten pertsonaia batzuk bigarren mailan agertzen dira –konparaziorako, Lady Miyako– eta pasarte esanguratsu batzuk –amerikarren parte hartzea, errate baterako– arruntean desagertzen dira. Izan ere, filma batez ere lehen tomoan dago oinarritua, eta tomo horretan du inportantzia motozaleen istorioak.

Mangan, berriz, kontakizuna korapilatsuagoa da, agertokiak askotarikoagoak, eta pertsonaien eta egoeren bilduma zabalagoa. Narrazio osoak hogeita hamarren bat urte lehenago zenbait haurrekin, haien gaitasunak hedatzeko eta garatzeko asmoz, egindako esperimentuetan du abiapuntua. Gaur egun –etorkizunean gaude, 2019. urtean– armadak altxatuak edo bahituak ditu –nondik begiratzen zaion– Tokio suntsitu zuen III. Mundu Gerraren ondotik haur berezi haietarik biziraun zutenak. Bakoitzak bere zenbakia du, 25, 26, 27, baina denak beldur dira noizbait 28.a, lotan dagoena, itzarriko ote den. Eta itzarriz gero, bere boterea kontrolatzeko gauza izanen ote den edo Neo Tokiora hondamendia ekarriko ote duen. 28.a. Hau da, Akira. Eta mangan itzarri, itzarriko da.

Akiraren inguruan harilkatzen den matazaren aitzakian, pertsekuzioak izanen ditugu –batek kasik liburuki oso bat hartzen du–, Mad Maxen estiloko egoera postapokaliptikoa, intriga politikoak, traizioak, berradiskidetzeak, ustekabeko birak eta gogoeta sasimistikoak. Akiran, komikian, etengabe ari dira gauzak gertatzen baina, aldi berean, istorioak emekiemeki egiten du aitzinera. Elkarriketak ez dira guti, baina badira orrialde ugari batere hitzik ez dutenak eta, ondorioz, Otomoren marrazki ikusgarri eta detaillez betearekin goatzeko aukera ematen dutenak –tebeoak ez baitira irakurtzeko soilik–. Bertze Akiran ere, animean, etengabe gertatzen dira gauzak, baina akaso hasmentatik akaberara doan lerroa mangan baino zuzenxeagoa da. Halere biek, mangak eta animeak, hainbat ezaugarri eta gai konpartitzen dituzte. Hasteko, zer





ikusten ari garen ulertzen ez dugularik ere –eta sentsazio hori tarteka izaten du irakurleak–, irudien dinamismoak eta indarrak aitzinera eramaten gaitu. Segitze-ko, manga baino laburragoa izanda ere, animeak mangaren gai nagusiei eutsi die: dagoeneko aipatua dugun motozaleen kultura –interesgarria, horri dagokionez, 1976ko dokumentala, *Godspeed You Black Emperor*, Mitsuo Yanagimachik zuzendua–; gazteak, etorkizunik gabeak baina gobernuak erabiliak esperimentuak egiteko; politikarien ustelkeria; karrikako protestak, ageriagagoak filmean komikian baino. Eta, azkenik, bi formatuen erdigunean dagoen sinbolo nagusia: Akira lotan dago, baina inoiz itzarriko balitz, zer ekarriko luke haren indarrak, bertze desastre bat edo etorkizun berri distiranta? Akira paratzen duen tokian, irakurleak jar dezala Japonia, eta animea eta manga zeharkatzen dituzten nahia eta izua –II. Mundu Gerrako porrotaren eta okupazioaren ondotik Japonia behingoz esnatzeko desioa, eta, aldi berean, izu-laborria, Japonia esnatzeak zer ekarriko duen– ikusiko ditu. Japoniako pop kulturako bertze zenbait produktutan bezala –*Godzilla* da burura etortzen lehena–, Akiran gerraren itzala ere luzea baita: bonba atomikotik hasi amerikarren okupazioraino. Nola nahi ere, animean ez bezala, mangan bi mila orrialdetan pasatu diren desastre guzietarik bizirik atera direnek, gure motozaleak buru dutela, “laguntzera” etorririko nazioarteko armada Neo Tokiotik kanporatuko dute.

TETSUO, STRANGER THINGS, TERMINATOR

Berrogei urte pasatu dira Katsuhiro Otomo Akira marrazten hasi zenetik, eta

*Komikiak edota
zientzia fikzioa
maite duten guziek
ezagutu beharko
luketen opus
magnuma da
'Akira'*

oraindik irakurlea liluratzeko indarra duen lana da. Ez da soilik manga gustuko duen orok irakurri beharko lukeen lana; orokorrean, komikiak edota zientzia fikzioa maite duten guziek ezagutu beharko luketen opus magnuma da. *Akira* 1988an hasi ziren AEBetan argitaratzen, Marvelen parte zen Epic Comics-en eskutik. Jatorrizko manga zuri eta beltzean egina badago ere, edizio amerikarra koloretan egitea erabaki zuten. Otomok hautatua, Steve Oliff arduratu zen AEBko edizioari kolorea emateaz, eta haren lanak mangakaren oniritzia izan zuen. Orobat, Otomok onartu zuen orrialdeen hurrenkera mendealdeko ohituretara moldatzea; alegia, irakurleak ezkerretik eskuinera irakurriko luke komikia, ez eskuinetik ezkerreara, Japonian ohikoa den bezala. Gaur egun, bi

bertsioak erraz eskura daitezke, zuri eta beltzekoa, eskuinetik ezkerreara irakurtzekoa dena, edo mendebaldartua, Oliffen kolorearekin. Biak dira eder-ederrak, eta normalean jatorrizko bertsioa nahiago izaten dudanez honek aitortu behar du bertsio koloreztatua ere ikaragarria dela.

Akiraren eragina, animearena zein mangarena, gaur egun artio ailegatzen da. Tetsuo du izena pertsonaia nagusietarik batek, eta segur aski ez da kasualitatea Shinya Tsukamotoen Japoniako ziberpunkaren maisulanak, 1989an estreinatua, *Tetsuo* izena izatea. Tsukamotoen filmean protagonistaren gorputza errotik aldatuko da metalarekin bat egin ahala, eta Otomoren mangan ere aldaketa ikusgarriak izanen ditu Tetsuoren gorputzak. Izan ere, Tetsuoren beso metalikoak –galdu duen egiazko besoaren ordezkogogora ekartzen du *Terminator*-en bigarren partean Arnold Schwarzeneggerrek erakusten duen beso metalikoa. Etor gaitzen honatago: 80ko hamarkadako erreferentzia bilduma den *Stranger Things* telesailan gobernu, sekretupean, esperimentuak egiten ari da botere telekinetik bereziak dituzten haur batzuekin. Hara! *Akiran* bezala. Eta lerro hauek idatzi bitartean zinema aretoetan dagoen Eskil Vogt-en *De Uskyldige* (Errugabeak) filmean, hiru haurren botere mentalek hobeki funtzionatzen dute elkarrekin sinkronizatzen badira, berriz ere *Akiran* gertatzen den bezala.

Komikiaren eta zientzia fikzioaren klasiko bat da *Akira*, eta oraindik haren eragina nabarmena da gaur egun, berrogei urteren ondotik, sortzen ari diren hainbat lanetan. Guri, orain, falta zaigun gauza bakarra da noizbait *Akiraren* liluraz euskaraz gozatu ahal izatea. ●